


IDEIA NAGUSIA:

Boligrafo berezi bat asmatu dugu. Honek aginduak jasotzen ditu Bluetootharen bidez, zuk nahi duzun kaligrafian idazteko. Beste funtzio bat ere badu, funtzio nagusiaren kontrakoa: Ordenagailuko dokumentuak orrira pasatzea aginduen bidez ere. Hau guztia boligrafoan dagoen chip batekin lortzen da, Bluetootha daukana. Boligrafoaren materialak ekologikoak dira; izan ere, ekoizpenean erabiltzen diren material guztiak birziklagarriak dira.



Marraskian ikus daitekeen bezala, boligrafoa urdina eta horia da. Gainera, chipa erdi izkutatuta dago, idazlea molesta ez dezan. Eta, boligrafoaren izena ikus daiteke beltzez argi eta garbi: Obalans I.

PROIEKTUAN AZTERTU BEHARREZKO ATALAK:

1. BALIO PROPOSAMENA:

Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Gure boligrafo bereziarekin idazlearen kaligrafiak hobetzen du eta denbora aurrezten dio; izan ere, gure boligrafoari aginduak ematen diozu. Adibidez, testu bat Arial 12an idatzi nahi baldin baduzu, boligrafoan dagoen metalezko zatiari hurbildu, esan eta segituan Arial 12an idatziko du. Edo, Driveko dokumentu bat orrira pasatu nahi baldin baduzu, metalezko zatiari esan. Guzti hau Bluetooth-arekin funtzionatuko du eta boligrafoa metalezko zati bat izango du behelaldean.

Diseinuari dagokionez, boligrafoaren kolorea eta tamaina nahiko sinpleak izango dira. Boligrafoa urdin argia izango da eta tapa horia. Tamaina, aldiz, boligrafo arrunt bat bezala izango da.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Bezeroa guri ordaintzeko prest egongo da; izan ere, ikasle asko daude denbora aurreztu nahi dutenak. Gainera, batzutan oso neketsua izaten da testuak idaztea eta boligrafo honekin karga hori gutxitzen da: boligrafoak badaki zer idatzi edo nola idatzi behar duen. Horretaz gain, kaligrafia txarra baduzu, boligrafo honek arazo hau konpontzen dizu, zuk nahi duzun kaligrafiara aldatzen duelako. Laburbilduz, ikasleok ditugun arazo gehienak konponduko ditu.

